



J'IRAI AU PARADIS CAR L'ENFER EST ICI , Xavier Durringer (Frantzia, 1997)
MA 6T VA CRACK-ER , Jean-Francois Richet (Frantzia, 1997)
LE PETIT VOLEUR (Lapur txikia), Érick Zonca (Frantzia, 1998)
L'HUMANITÉ , Bruno Dumont (Frantzia, 1999)
POLA X , Leos Carax (Frantzia, 1999)
RESSOURCES HUMAINES (Giza baliabideak), Laurent Cantet (Frantzia, 1999)
À MA SOEUR! , Catherine Breillat (Frantzia-Italia, 2000)
PARIA , Nicolas Klotz (Frantzia, 2000)
SAINT-CYR , Patricia Mazuy (Frantzia-Belgika, 2000)
SELON MATTHIEU (Matthieuren arabera), Xavier Beauvois (Frantzia, 2000)
SOUS LE SABLE (Hondar azpian), François Ozon (Frantzia-Belgika-Britainia Handia-Japonia, 2000)
ÊTRE ET AVOIR (Izan eta ukan), Nicolas Philibert (Frantzia, 2001)
IRRÉVERSIBLE (Itzulezina), Gaspar Noé (Frantzia, 2001)
LA CHATTE À DEUX TÊTES , Jacques Nolot (Frantzia, 2001)
LA VIE NOUVELLE , Philippe Grandrieux (Frantzia, 2001)
LE PACTE DES LOUPS (Otsoen ituna), Christophe Gans (Frantzia, 2001)
LE STADE DE WIMBLEDON , Mathieu Amalric (Frantzia, 2001)
ROBERTO SUCCO , Cédric Kahn (Frantzia-Suitza, 2001)
TROUBLE EVERY DAY , Claire Denis (Frantzia-Japonia, 2001)
DANS MA PEAU , Marina De Van (Frantzia, 2002)
UN HOMME, UN VRAI , Jean-Marie Larrieu, Arnaud Larrieu (Frantzia, 2002)
CLEAN , Olivier Assayas (Frantzia-Britainia Handia-Kanada, 2003)
INNOCENCE , Lucile Hadzihalilovic (Frantzia-Britainia Handia-Belgika, 2003)
L'ESQUIVE (Iheskorra), Abdellatif Kechiche (Frantzia, 2003)
LE CONVOYEUR , Nicolas Boukhrief (Frantzia, 2003)
LES CORPS IMPATIENTS , Xavier Giannoli (Frantzia, 2003)
ROIS ET REINE (Erregeak eta erregina), Arnaud Desplechin (Frantzia-Belgika, 2003)
TIREZIA , Bertrand Bonello (Frantzia, 2003)
DE BATTRE MON COEUR S'EST ARRÊTÉ (Taupadaka nire bihotza geratu egin da), Jacques Audiard (Frantzia, 2004)
LES REVENANTS , Robin Campillo (Frantzia, 2004)
LES ANGES EXTERMINATEURS , Jean-Claude Brisseau (Frantzia, 2005)
VOICI VENU LE TEMPS , Alain Guiraudie (Frantzia, 2005)
À L'INTERIEUR , Alexandre Bustillo, Julien Maury (Frantzia, 2006)
AVIDA , Benoît Delépine, Gustave Kervern (Frantzia, 2006)
LES CHANSONS D'AMOUR , Christophe Honoré (Frantzia, 2006)
24 MESURES , Jalil Lespert (Frantzia-Kanada, 2007)
L'HISTOIRE DE RICHARD O. , Damien Odoul (Frantzia, 2007)
LA FRANCE , Serge Bozon (Frantzia, 2007)
MARTYRS , Pascal Laugier (Frantzia-Kanada, 2007)
L'AUTRE , Patrick-Mario Bernard, Pierre Trividic (Frantzia, 2008)

LABURMETRAIAK

JEUX DE PLAGE , Laurent Cantet (Frantzia, 1995)
UNE ROBE D'ÉTÉ , François Ozon (Frantzia, 1996)
BIEN SOUS TOUS RAPPORTS , Marina De Van (Frantzia, 1996)
L'INTERVIEW , Xavier Giannoli (Frantzia, 1997)

57 FESTIVAL DE SAN SEBASTIÁN

DONOSTIA ZINEMALDIA

INTERNATIONAL FILM FESTIVAL 18 | 26 IRAILA SEPTIEMBRE 2009

KONTRAUHINA:
FRANTZIAKO ZINEMA BERRIENA



MILLEVACHES (EXPÉRIENCE) , Pierre Vinour (Frantzia, 2000)
MONSIEUR WILLIAM, LES TRACES D'UNE VIE POSSIBLE , Denis Gaubert (Frantzia, 2001)
DÉLICES , Gérard Cairaschi (Frantzia, 2002)
SOMETIMES , PLEIX (Frantzia, 2003)
OBRAS , Hendrick Dusollier (Frantzia, 2004)
LA PEUR, PETIT CHASSEUR , Laurent Achard (Frantzia, 2004)
DU SOLEIL EN HIVER , Samuel Collardey (Frantzia, 2005)
QUELQUES MIETTES POUR LES OISEAUX , Nassim Amaouche (Frantzia, 2005)
CINDY, THE DOLL IS MINE , Bertrand Bonello (Frantzia, 2005)
DE RETOUR , Jalil Lespert (Frantzia, 2005)
DIX , Bif (Frantzia-Britainia Handia, 2008)





J'IRAI AU PARADIS CAR L'ENFER EST ICI

Zuzendaria: Xavier Durringer · **Gidoia:** Jean Miez, Xavier Durringer · **Argazkia:** Mathieu Vadepied · **Antzezleak:** Arnaud Giovaninetti, G erald Laroche, Claire Keim, Brigitte Catillon, Jean Miez
Iraupena: 115 m. · Frantzia · 1997

Fran ois mafiako kide beldurgarri baten seme menderakaitzaren taldeak polizia atzetik du lapurreta bat egin ostean. Poliziaren jazarpenaren ondorioz banda hautsi eta eztanda egingo du; kontu-garbitzea hasiko da orduan. Antzerkigile eta zinemagile hau 1997ko Donostia Zinemaldiko Sail Ofizialean lehiatu zen film errealista eta gogor honekin eta bere aktore-zerrenda bikainarekin.

MA 6T VA CRACK-ER

Zuzendaria: Jean-Francois Richet · **Gidoia:** Jean-Francois Richet, Arco Descat C. · **Argazkia:** Val erie Le Guron · **Antzezleak:** Arco Descat C., Jean-Marie Robert, Malik Zeggou, Mustapha Ziad, Dominique Descat, Jean-Fran ois Richet
Iraupena: 105 m. · Frantzia · 1997

Meaux izeneko Paris kanpoaldeko auzo bateko bizitzari buruzko erretratu sendoa. Auzoan ikasketetan porrot egin duten zenbait gazte bilduko dira; ahal dutenarekin trapitxeatzen dute, lapurretak egin eta banda txikiak osatzen dituzte. Hip hop ekitaldi batean, tiroketa baten ondorioz, gazte bat hilko da. Hori izango da kaleko iraultza piztuko duen metxa. *Gang*edo bandei buruzko zinema eta hausnarketa politikoa Richeten eskutik.

LE PETIT VOLEUR

(Lapur txikia)

Zuzendaria:  rick Zonca · **Gidoia:**  rick Zonca, Virginie Wagon · **Argazkia:** Pierre Milon, Catherine Pujol · **Antzezleak:** Nicolas Duvauchelle, Yann Tr gou t, Jean-J r me Esposito, Martial Bezot, Jo Prestia
Iraupena: 65 m. · Frantzia · 1998

Erick Zoncaren bigarren lana da, laburra eta sintetikoa; bizitzera Marseilla iparraldera joango den eta laster kriminal talde baten jardueratan nahastuko den gazte baten gorabeherak kontatuko dizkigu (Nicolas Duvauchelle-k antzeztua). Filma, auzo pobreetako bizitzari buruzko kronika dela esango genuke, ukitu oso errealista eta epidermikoekin.

L'HUMANIT 

Zuzendaria: Bruno Dumont · **Gidoia:** Bruno Dumont · **Argazkia:** Yves Cape · **Antzezleak:** Ghislain Ghesqu re, Emmanuel Schott , S verine Canele, Philippe Tullier, Ginette All gre
Iraupena: 148 m. · Frantzia · 1999

Pharaon de Winter inspektoreak hiru arrazoi ditu sufritzeko: bizilagunagatik sentitzen duen itxaropenik gabeko maitasuna, ikertzen dabilen neskatala baten bortxaketa eta hilketa, eta besteen erruak bere egiteko joera. Errealismo garratz eta zakarreko film honek Canneseko Epaimahaiaren Sari Nagusia irabazi zuen 1999an, baita bi interpretazio sari ere protagonistentzat. Bruno Dumont *Hadewijch* filmarekin lehiatuko da aurten Zinemaldian.



POLA X

Zuzendaria: Leos Carax · **Gidoia:** Leos Carax, Jean-Pol Fargeau, Lauren Sedofsky · **Argazkia:** Éric Gautier · **Antzezleak:** Guillaume Depardieu, Katerina Golubeva, Catherine Deneuve, Delphine Chuillot, Laurent Lucas
Iraupena: 135 m. · Frantzia · 1999

Duela hamar urte Leos Carax Frantziako zinemaren *enfants terribles* nagusietako batek eginiko laugarren, eta, orain arte, azken lana da. Guillaume Depardieu, Laurent Lucas, Catherine Deneuve eta Sharunas Bartas antzezleek osatzen duten historia zoragarri honen aktore-zerrenda. Protagonista etorkizun handia duen idazle gaztea da; egun batean, neska bitxi batek, bere bizitza aldatuko duen zerbeit aitortuko dio.

RESSOURCES HUMAINES

(Giza baliabideak)

Zuzendaria: Laurent Cantet · **Gidoia:** Gilles Marchand, Laurent Cantet · **Argazkia:** Matthieu Poirot-Delpech, Claire Caroff · **Antzezleak:** Jalil Lespert, Jean-Claude Vallod, Chantal Barré, Véronique de Pandelaère, Michel Begnez
Iraupena: 100 m. · Frantzia · 1999

Canteten opera prima da hau, baita azken hamarkadan klase-borrokari buruz egin den film garrantzitsuenetako bat ere. Gazte bat jaioterrira itzuliko da aitak lan egiten duen fabrikako giza baliabideen sailean praktikak egiteko. Orduan aitaren izena ikusiko du berehala kanporatuko dituzten langileen zerrendan eta borroka sindikalean sartzeari erabakiko du. 1999. urteko Donostia Zinemaldian Zuzendari Berrien Saria jaso zuen.

À MA SOEUR!

Zuzendaria: Catherine Breillat · **Gidoia:** Catherine Breillat · **Argazkia:** Yorgos Arvanitis, Olivier Fortin, Christophe Le Caro · **Antzezleak:** Anaïs Reboux, Roxane Mesquida, Libero De Rienzo, Arsinée Khanjian, Romain Goupil
Iraupena: 94 m. · Frantzia-Italia · 2000

Elena eta Anaïs ahizpak dira, baina ez dute inolako antzik elkarren artean. Elena ederra da eta mutilak erakartzen ditu; Anaïs, ordea, lodia eta itsusia da. Oporretan, Elenak birjintasuna galduko du eta Anaïsek bere ondorioak aterako ditu sexualitatearen inguruan. Catherine Breillat idazle eta zinemagile polemikoaren film pertsonalenetako bat.

PARIA

Zuzendaria: Nicolas Klotz · **Gidoia:** Élisabeth Perceval · **Argazkia:** Hélène Louvart · **Antzezleak:** Cyril Trolley, Gérald Thomassin, Didier Berestetsky, Morgane Hainaux, Aristide Demonicó
Iraupena: 126 m. · Frantzia · 2000

Donostia Zinemaldian aurkeztu zuten, 2000. urtean, eta Epaimahaiaren Sari Berezia irabazi zuen. Zuzendariak -Nicolas Klotz- fikzioaren eta dokumentalaren elementuak nahastuko ditu kalean bizi den pertsona talde baten bizitza kontatzeko. Bazterketaren trilogia deiturikoaren lehenengo entrega da; osatzen duten beste bi lanak *La blessure* eta *La question humaine* dira.



SAINT-CYR

Zuzendaria: Patricia Mazuy · **Gidoia:** Yves Thomas, Patricia Mazuy · **Argazkia:** Thomas Mauch · **Antzezleak:** Isabelle Huppert, Jean-Pierre Kalfon, Jean-François Balmer, Jérémie Rénier, Anne Marev
Iraupena: 119 m. · Frantzia-Belgika · 2000

Madame de Maintenon Frantziako Luis XIV.a erregearen maitalea eta bigarren emaztea izan zen -ezkontza ezkutukoa eta morgantikoa izan bazen ere-. 1686an Saint-Cyr eskola ireki zuen, garai hartan porrot egin zuen nobleziakoak izandako eta pertsona aske bilakatutako ehunka neskatilei heziketa eskaintzeko. Hainbat gai landuko ditu protagonistatzat Isabelle Huppert duen film honek; Musika John Caleren eskutik.

SELON MATTHIEU

(Matthieuren arabera)

Zuzendaria: Xavier Beauvois · **Gidoia:** Xavier Beauvois, Catherine Breillat, Cédric Anger · **Argazkia:** Caroline Champetier · **Antzezleak:** Nathalie Baye, Benoît Magimel, Antoine Chappey, Fred Ulysse, Jean-Marie Winling
Iraupena: 100 m. · Frantzia · 2000

Canteten *Ressources humaines* lana osatu eta aberastuko duen langile-klaseari eta klaseen arteko desberdintasunei buruzko filma. Benoît Magimel aktoreak, 53 urteko aita lan-orduetan erretzeagatik bidegabe kaleratu ondoren gainerako langileak grebara eraman nahi dituen enplegatuaren rola egingo du. Protagonistaren mendekua nagusiaren emaztea limurtzea izango da.

SOUS LE SABLE

(Hondar azpian)

Zuzendaria: François Ozon · **Gidoia:** Emmanuelle Bernheim, Marcia Romano, Marina De Van · **Argazkia:** Jeanne Lapoirie, Antoine Héberlé · **Antzezleak:** Charlotte Rampling, Bruno Cremer, Jacques Nolot, Alexandra Stewart, Pierre Vernier
Iraupena: 95 m. · Frantzia-Belgika-Britainia Handia-Japonia · 2000

Charlotte Rampling aktoreak urtero senarrarekin oporretara Landetako eskualdera joaten den emakumearen rola egingo du. Egun batean, hondartzan daudela, esnatu eta senarra desagertu egin dela konturatuko da. Ozonen lana 2000. urteko Donostia Zinemaldian izan zen. Bestalde, zuzendariaren azken lana, *Le refuge*, lehian izango da aurten.

ÊTRE ET AVOIR

(Izan eta ukan)

Zuzendaria: Nicolas Philibert · **Gidoia:** Nicolas Philibert · **Argazkia:** Katel Djian, Laurent Didier
Iraupena: 104 m. · Frantzia · 2001

"Gela bakarreko eskolen" Frantziako fenomenoan oinarrituriko dokumental estimulatzaile eta probokatzaila. Eskola horietan herri bateko haur guztiak gela berean biltzen dituzte, haur eskolatik lehen mailako hezkuntzaren amaierara arte, eta guztiak irakasle bakarra dute. Arrakasta handia izan zuen Frantzian eta pizgarri bikaina izan zen herrialdeko hezkuntza egiturentzat. Dokumental Onenaren Europako Zinema Akademiaren Saria irabazi zuen 2003an.



IRRÉVERSIBLE

(Itzulezina)

Zuzendaria: Gaspar Noé · **Gidoia:** Gaspar Noé · **Argazkia:** Benoît Debie · **Antzezleak:** Monica Bellucci, Vincent Cassel, Albert Dupontel, Philippe Nahon, Jo Prestia
Iraupena: 99 m. · Frantzia · 2001

Marcus eta Pierre Pariseko kaleetan barrena dabilta mendeku bila. Marcusen neska-laguna Alex ederraren bortxatzaile eta hiltzailea aurkitu nahi dute. Puntu horretara daramatzen mina itzulezina da, baita mendekua ere. Narrazio oso originalaz eta indarkeria esplizituko irudi gogorrez baliatuta Gaspar Noé zuzendari probokatzaileak kritika eta publikoa asaldatu zituen 2002an filma Cannesen aurkeztu zuenean.

LA CHATTE À DEUX TÊTES

Zuzendaria: Jacques Nolot · **Gidoia:** Jacques Nolot · **Argazkia:** Germain Desmoulins · **Antzezleak:** Vittoria Scognamiglio, Jacques Nolot, Sébastien Viala, Olivier Torres, Lionel Goldstein
Iraupena: 87 m. · Frantzia · 2001

Pariseko zinema porno areto batean kokatzen da sarrera saltzailearen, gizon heldu baten eta proiektionista gazte baten arteko amodio istorio hau. Sarrera saltzaileak proiektionistaren sineskortasuna aprobetxatuko du gizon heldua erakartzeko; hark, sarrera saltzailea erabiliko du proiektionista gaztea erakartzeko. Jacques Nolotek idatzi, zuzendu eta interpretatu zuen eta 2002ko Canneseko Un Certain Regard sailean lehiatu zen.

LA VIE NOUVELLE

Zuzendaria: Philippe Grandrieux · **Gidoia:** Philippe Grandrieux, Éric Vuillard · **Argazkia:** Stéphane Fontaine · **Antzezleak:** Zachary Knighton, Anna Mouglalis, Marc Barbé, Zsolt Nagy, Vladimir Zintov
Iraupena: 102 m. · Frantzia · 2001

Seymour, Kosovora bidali duten militar gazte amerikarra da. Baimen egun batzuk dituen Sofiara joango da. Bertan, prostituta gazte batekin obsesionatuko da, eta ondorioz, mundu lizun, maltzur eta dekadente batean sartuko da. Orfeoren mitoaren egokitzapen guztiz pertsonal honetan Grandrieux ikuslea probokatzen eta asaldatzen saiatuko da tentsio eta zirrara dosi handiz baliatuta.

LE PACTE DES LOUPS

(Otsoen ituna)

Zuzendaria: Christophe Gans · **Gidoia:** Stéphane Cabel, Christophe Gans · **Argazkia:** Dan Laustsen · **Antzezleak:** Samuel Le Bihan, Mark Dacascos, Emilie Dequenne, Vincent Cassel, Monica Bellucci
Iraupena: 140 m. · Frantzia · 2001

Christophe Gans, *Starfix* aldizkariko buruak, kritikari gisa defendatu zuen genero zinemaren izpiritua pantailara eramango du Nicolas Boukhriefekin. Emaizta film indartsu eta plastikoa da, abenturak, terrorea, fantasia, drama eta borroka-arteak nahasten dituena, XVIII. mendeko Frantzia izututa duen izaki beldurgarri baten istorioaren inguruan.



LE STADE DE WIMBLEDON

Zuzendaria: Mathieu Amalric · **Gidoia:** Mathieu Amalric · **Argazkia:** Christophe Beaucarne · **Antzezleak:** Jeanne Balibar, Esther Gorintin, Anna Prucnal, Ariella Reggio, Peter Hudson
Iraupena: 65 m. · Frantzia · 2001

Mathieu Amalric gaur egungo Frantziako zinemaren pertsonaia garrantzitsuenetakoa da. Besteak beste Assayas, Bonello, Klotz, Desplechin edo Larrieu anaiak sinaturiko lanetan protagonista izan da. 2001ean bere bigarren film luzea zuzendu zuen. Orduan bere neska-laguna zen Jeanne Balibar da protagonista eta inoiz libururik argitaratu ez zuen literato baten urratsen atzetik Triestera bidaiatzen duen emakumearen rola egingo du.

ROBERTO SUCCO

Zuzendaria: Cédric Kahn · **Gidoia:** Cédric Kahn · **Argazkia:** Pascal Marti · **Antzezleak:** Stefano Cassetti, Isild Le Besco, Patrick Dell'Isola, Vincent Deneriaz, Aymeric Chauffert
Iraupena: 124 m. · Frantzia-Suitza · 2001

Egiazko istorio baten berreraikuntza da, Roberto Succo hiltzaile italiarrarena, hain zuzen. Succok hainbat pertsona hil zituen Europan 80ko hamarkadan. Kahnen filmak hiltzaileak Kosta Urdineko dantzaleku batean ezagutu zuen neska frantsesarekin izan zuen harremana du oinarri. Neska, nahi gabe, haren ekintzen konplize bilakatu zen.

TROUBLE EVERY DAY

Zuzendaria: Claire Denis · **Gidoia:** Claire Denis, Jean-Pol Fargeau · **Argazkia:** Agnès Godard · **Antzezleak:** Vincent Gallo, Tricia Vessey, Béatrice Dalle, Alex Descas, Florence Loiret-Caille
Iraupena: 100 m. · Frantzia-Japonia · 2001

Claire Denisek kanibalismoari buruzko istorio bat kontatuko digu. Béatrice Dalle eta Vincent Gallo protagonistek beren instintu jatunak askatuko dituzte Tindersticks taldearena abestiez lagunduta. Gazte iparamerikar bat Parisera iritsiko da bere bikotearekin. Harekin iraganean lan egin zuen zientzialari baten bila abiatuko da etsi-etsian. Haren emaztea ere haragikeriaren biktima izan da, baina emakumeak dilema moral gutxiago dauzka.

DANS MA PEAU

Zuzendaria: Marina De Van · **Gidoia:** Marina De Van · **Argazkia:** Pierre Barouquier · **Antzezleak:** Marina De Van, Laurent Lucas, Léa Drucker, Thibault de Montalembert, Dominique Reymond
Iraupena: 93 m. · Frantzia · 2002

Estherrek zauri larria egingo du hankan. Gertakariak liluratu egingo du, eta ondorioz, bere gorputzarekiko, azalarekiko eta odolarekiko harreman bitxia hasiko du. Bilaketa horretan gero eta urrunago joango da, bere gorputzeko atalak moztu eta besteengandik isolatzera arte. Marina De Van hauslearen film arriskutsu eta izugarria. Berebiziko inpaktua eragin zuen 2002ko Zabaltegin.

UN HOMME, UN VRAI

Zuzendaria: Jean-Marie Larrieu, Arnaud Larrieu · **Gidoia:** Arnaud Larrieu, Jean-Marie Larrieu, Sophie Fillières · **Argazkia:** Christophe Beaucarne · **Antzezleak:** Hélène Fillières, Mathieu Amalric, Pierre Pellet, Philippe Suer, Daniel Cohen
Iraupena: 120 m. · Frantzia · 2002

Gizon baten eta emakume baten hamar urteko harremanaren kontakizuna. Lehenengo ustekabeko topaketa, maitasunaren jolasa eta maitemintzea. Bost urte geroago seme-alabak, nolabaiteko aspertzeta, desleialtasuna eta banantzea. Handik bost urtera, ustekabeko topaketa berriz, egoera bitxienean. Larrieu anaien umorearen adibide bat, Mathieu Amalric eta Hélène Fillières aktoreekin.



CLEAN

Zuzendaria: Olivier Assayas · **Gidoia:** Olivier Assayas · **Argazkia:** Éric Gautier · **Antzezleak:** Maggie Cheung, Béatrice Dalle, Laura Smet, Jeanne Balibar, Ian Brown, Nick Nolte
Iraupena: 100 m. · Frantzia-Britainia Handia-Kanada · 2003

Drogak edukitzeagatik denboraldi bat kartzelan eman ondoren, Emilyk bere semea berreskuratzeko eta "garbi" egoteko beharra dauka. Ezaugarri nagusi gisa musika zuen belaunaldi autodestruktibo bati buruzko erretratu sakona. Gaur egungo Frantziako zinemaren funtsezko zuzendarietako baten indar estetiko eta emozionalaren adibide hunkigarria. Lan honi esker Maggie Cheungek Emakumezko Aktore Onenaren Saria irabazi zuen Cannesen 2004an.

INNOCENCE

Zuzendaria: Lucile Hadzihalilovic · **Gidoia:** Lucile Hadzihalilovic · **Argazkia:** Benoît Debie · **Antzezleak:** Zoé Auclair, Alisson Lalieux, Joséphine Van Wambeke, Astrid Homme, Marion Cotillard, Hélène de Fougerolles
Iraupena: 117 m. · Frantzia-Britainia Handia-Belgika · 2003

Basoan ezkutatuta, munduarengandik isolatutako eskola bat dago. Neskatila batzuek dantza eta natur zientziak ikasten dituzte. Obeditzea funtsezkoa da. Aginduak betetzen ez dituenak, edo alde egiten saiatzen denak, gainerakoak zerbitzatu beharko ditu eta barnetegian geratu beharko du betiko. Lucile Hadzihalilovic Kutxa-Zuzendari Berriak Epaimahaiko kidea izango da aurten. Sari hori bera irabazi zuen zuzendariak 2004an.

L'ESQUIVE

(lheskorra)

Zuzendaria: Abdellatif Kechiche · **Gidoia:** Abdellatif Kechiche, Ghalya Lacroix · **Argazkia:** Lubomir Bakchev · **Antzezleak:** Osman Elkharraz, Sara Forestier, Sabrina Ouazani, Nanou Benahmou, Hafet Ben-Ahmed
Iraupena: 117 m. · Frantzia · 2003

Klaseko neska batek zora-zora eginda dauka Krimo. Hari bere maitasuna agertzeko, neska prestatzen ari den antzezlanean parte hartzea erabakiko du. Krimok izugarrizko lana egingo du; testuaren luzerak eta lengoaia irakaslearen zorrotzasunak kezkatuta dute mutikoa. Pariseko auzo pobreen ikuspegi freskoa. Bost Zesar sari irabazi zituen 2005ean; horien artean, Film Onenarena eta Zuzendari Onenarena.

LE CONVOYEUR

Zuzendaria: Nicolas Boukhrief · **Gidoia:** Nicolas Boukhrief, Eric Besnard · **Argazkia:** Dominique Colin · **Antzezleak:** Albert Dupontel, Jean Dujardin, François Berléand, Claude Perron, Julien Boisselier
Iraupena: 95 m. · Frantzia · 2003

"Vigilante" izeneko segurtasun enpresa krisi latzean dago hiru lapurreta gogor jasan ondoren. Porrot egiteko zorian dago eta langileak oso urduri daude. Orduan, Alexandre Demarre misteriotsua iritsiko da. Nicolas Boukhrief zinemazale amorratuak idatzi eta zuzenduriko polizia-film bikain honek berebiziko arrakasta izan zuen eta laster egingo dute haren *remakea* AEBetan.



LES CORPS IMPATIENTS

Zuzendaria: Xavier Giannoli · **Gidoia:** Xavier Giannoli · **Argazkia:** Yorick Le Saux · **Antzezleak:** Laura Smet, Nicolas Duvauchelle, Marie Denarnaud, Catherine Salviat, Maurice Antoni
Iraupena: 94 m. · Frantzia · 2003

Xavier Giannolik samurtasun handiarekin kontatuko digu hiru pertsonen arteko harreman konplexua. Laura Smet (Johnny Hallydayren alaba) aktoreak, birrikako minbizia duen neskaren rola egingo du. Haren mutil-lagunak (Nicholas Duvauchelle) izugarri maite du eta indarrak emango dizkio, baina laster, beste neska batekin maiteminduko da (Marie Denarnaud); gaixotasunaren aurrean sentitzen duen ezinegonaz eta inpotentziaz aldentzeko bide bat, azken finean.

ROIS ET REINE

(Erregeak eta erregina)

Zuzendaria: Arnaud Desplechin · **Gidoia:** Arnaud Desplechin, Roger Bohbot · **Argazkia:** Éric Gautier · **Antzezleak:** Emmanuelle Devos, Mathieu Amalric, Catherine Deneuve, Maurice Garrel, Nathalie Boutefeu
Iraupena: 150 m. · Frantzia-Belgika · 2003

Desplechinen lanetan ikusi ohi dugun Mathieu Amalric aktoreak Interpretazio Onenaren Zesar saria irabazi zuen 2005ean film honetan egindako lanagatik. Kontakizunak itxuraz kontrakoak diren, eta iraganean maitaleak izan ziren, bi pertsonaia aurkezten dizkigu; akats baten ondorioz psikiatriko batean sartu duten biolin-jolea eta arte galeria batez arduratzen den emakume burgesa, Emmanuelle Devos.

TIRESIA

Zuzendaria: Bertrand Bonello · **Gidoia:** Bertrand Bonello · **Argazkia:** Josée Deshaies · **Antzezleak:** Laurent Lucas, Clara Choveaux, Thiago Teles, Célia Catalifo, Lou Castel
Iraupena: 115 m. · Frantzia · 2003

Bertrand Bonellok greziarren Tiresias mitoa egokitu du, eta Tebasen gertatzen ziren erdi gizon erdi emakume zen azti itsuaren kontakizun mitologikoak gaur egungo garaian kokatuko ditu. Protagonista Pariseko Bois de Boulogne parkean prostituzioan aritzen den transexual brasildarra da. Zoratuta duen gizon batek bahitu egingo du, eta hormonaz jositako bere gorputzak aldaketak jasango ditu.

DE BATTRE MON COEUR S'EST ARRÊTÉ

(Taupadaka nire bihotza geratu egin da)

Zuzendaria: Jacques Audiard · **Gidoia:** Jacques Audiard, Tonino Benacquista · **Argazkia:** Stéphane Fontaine · **Antzezleak:** Romain Duris, Aure Atika, Emmanuelle Devos, Niels Arestrup, Jonathan Zaccai
Iraupena: 107 m. · Frantzia · 2004

Thomasek aitaren urratsak jarraitzera behartuta ikusten du bere burua, higiezinen mundu ilunean barrena. Ezusteko topaketa batek bere bizitzako ametsa betetzeko ilusioa itzuliko dio: kontzertista bikaina izatea, ama bezala. Lana utzi gabe, frantsesik hitz egiten ez duen piano-jole txinatar batekin hasiko da prestatzen. Zazpi Zesar sari irabazi zituen 2006an, horien artean Film Onenarena eta Zuzendari Onenarena (Jacques Audiard).



LES REVENANTS

Zuzendaria: Robin Campillo · **Gidoia:** Robin Campillo, Jean-André Yerles · **Argazkia:** Jeanne Lapoirie · **Antzezleak:** Géraldine Pailhas, Jonathan Zaccāi, Frédéric Pierrot, Catherine Samie, Victor Garrivier
Iraupena: 110 m. · Frantzia · 2004

Laurence Cantetekin gidolari gisa lan egiteagatik ezaguna da Campillo. Bere lehenengo zuzendari lanean (oraingoz bakarra) berpizten diren hildakoen gaia aztertuko du, baina ikuspuntu sozial eta politikotik. Mundu osoko milaka hildako berpiztean hasiko da ekintza. Haiek gizartean berriz sartzea da arazoa.

LES ANGES EXTERMINATEURS

Zuzendaria: Jean-Claude Brisseau · **Gidoia:** Jean-Claude Brisseau · **Argazkia:** Wilfrid Sempé · **Antzezleak:** Frédéric Van Den Driessche, Maroussia Dubreuil, Lise Belynck, Marie Allan, Raphaële Godin
Iraupena: 100 m. · Frantzia · 2005

Zinema garratz, krudel eta gordinaren (eta ia beti polemikoa) adibide perfektua Jean-Claude Brisseauren eskutik. Protagonista polizia-film baten errodajearen erabat murgilduta dagoen zinemagilea da. Emakume bat biluzik dagoen sekuentzia errodatu ondoren, proiektua beste bide batetik eramatea erabakiko du, sexuaren tabuen inguruan fikzioa eta errealitatea nahasten dituen istorioa eraikitzeko.

VOICI VENU LE TEMPS

Zuzendaria: Alain Guiraudie · **Gidoia:** Alain Guiraudie · **Argazkia:** Antoine Héberlé · **Antzezleak:** Éric Bougnon, Guillaume Viry, Pierre-Louis Calixte, Jacques Buron, Marie Collins
Iraupena: 92 m. · Frantzia · 2005

Alain Guiraudiek berriz planteatuko du komediaren eta zinema historikoaren zentzua Erdi Aroaren eta Aro Garaikidearen artean gertatzen den eta irudizko Obitanian kokatzen den istorio honekin. Protagonista bi gizonetako sentitzen duen maitasunaren artean erabaki ezinik dabilen gerlaria da; bitartean jauntxo baten alaba bahitu duen bidelapur arriskutsua aurkitu beharko du.

À L'INTERIEUR

Zuzendaria: Alexandre Bustillo, Julien Maury · **Gidoia:** Alexandre Bustillo · **Argazkia:** Laurent Barès · **Antzezleak:** Béatrice Dalle, Alysson Paradis, Nicolas Duvauchelle, Nathalie Roussel, Ludovic Berthillot
Iraupena: 80 m. · Frantzia · 2006

Sarahk bakarrik igaroko du Gabon gaua. Egun bat geratzen zaio erditzeko. Emakume bat etorriko zaio ate joka, barruan daraman haurtxoa kentzeko prest. Interpretazio duelua Béatrice Dalle beldurgarriaren eta Alysson Paradis gaztearen artean. Azken urteetako beldurrezko film txalotuenen artean dagoen lan honen zuzendariak generoko zinemaren bi aditu dira.

AVIDA

Zuzendaria: Benoît Delépine, Gustave Kervern · **Gidoia:** Benoît Delépine, Gustave Kervern · **Argazkia:** Hugues Poulain · **Antzezleak:** Benoît Delépine, Gustave Kervern, Éric Martin, Claude Chabrol, Bouli Lanners
Iraupena: 83 m. · Frantzia · 2006

Gor-mutu batek eta bi ketaminazalek porrot egingo dute emakume aberats galant baten txakurra bahitzeko saiakeran. Emakumeak egoera baliatuko du bahitzaileak bere azken nahia egiten laguntzera behartzeko. *Louise-Michel* filmaren zuzendari probokatzaileren absurduaren zinemaren adibide bitxia. Umore bikaina eta izpiritu askea dutenentzat bakarrik.



LES CHANSONS D'AMOUR

Zuzendaria: Christophe Honoré · **Gidoia:** Christophe Honoré · **Argazkia:** Rémy Chevrin · **Antzezleak:** Louis Garrel, Ludivine Sagnier, Clotilde Hesme, Chiara Mastroianni, Grégoire Leprince-Ringuet
Iraupena: 95 m. · Frantzia · 2006

Christophe Honoréren azken lana Zinemaldiaren Sail Ofizialean izango da. Film honetan, zinema musikala aztertuko du, kazetari baten, haren neska-lagunaren eta bien lagun berriaren arteko historiaren bitartez. Louis Garrel, Ludivine Sagnier, Clotilde Hesme eta Chiara Mastroiannik, beste batzuen artean, beren sentimenduez hitz egingo digute kale erdian abesturiko kantuen bitartez. Alex Beaupainek Zesar saria jaso zuen soinu-banda ederragatik.

24 MESURES

Zuzendaria: Jalil Lespert · **Gidoia:** Jalil Lespert, Yann Appery · **Argazkia:** Josée Deshaies · **Antzezleak:** Benoît Magimel, Lubna Azabal, Sami Bouajila, Bérangère Allaux, Archie Shepp
Iraupena: 90 m. · Frantzia-Kanada · 2007

Gau batean, lau pertsonaia bakartiren patuek bat egingo dute. Bakoitzak bizitzan konpondu beharreko kontu bat dauka, baina ez daki nola egin. *Ressources humaines* (*Giza baliabideak*) filmaren protagonistaren opera prima. Nabarmentzekoa da pasioz eta antsietatez beteriko pertsonaia antzetzten dituzten aktoreen zerrenda. 2007ko Veneziako zinema jaialdian aurkeztua.

L'HISTOIRE DE RICHARD O.

Zuzendaria: Damien Odoul · **Gidoia:** Damien Odoul · **Argazkia:** Patrick Ghiringhelli · **Antzezleak:** Mathieu Amalric, Stéphane Terpereau, Ludmila Ruoso, Tiara Comte, Rhizlaine El Cohen
Iraupena: 75 m. · Frantzia · 2007

Paris, abuztua. Bere desioak bultzatua Richard O. erotismoaren oinarrien bila abiatuko da eta egia bilakatuko ditu bere sexu fantasiak, baita bidean aurkitzen dituen udako biztanleenak ere. Sexuari eta desirari buruzko engainurik gabeko tratatu probokatzailerik, ironiko eta poetikoa. Matthieu Amalric-ek aktore bikaina dela erakutsiko digu berriz ere bere interpretazio guztiz aske eta ausart honekin.

LA FRANCE

Zuzendaria: Serge Bozon · **Gidoia:** Axelle Ropert · **Argazkia:** Céline Bozon · **Antzezleak:** Sylvie Testud, Pascal Greggory, Guillaume Verdier, Jean-Christophe Bouvet, Guillaume Depardieu
Iraupena: 102 m. · Frantzia · 2007

Frantzia 1917: gerra amaitzen ari da. Camillek senarraren eskutitza jasoko du frontetik. Emaztea uztera doa. Camillek ezingo du irakurritakoa onartu eta senarraren bila abiatuko da gizonez jantzita. Soldadu desertore batzuek taldeko beste kide bat bezala onartuko dute. Elkarrekin itzarongo dute gatazkaren amaiera, kantuan eta dantzaz. Canneseko Errealizadoreen Hamabostaldian aurkeztua. Jean Vigo saria irabazi zuen 2007an.

MARTYRS

Zuzendaria: Pascal Laugier · **Gidoia:** Pascal Laugier · **Argazkia:** Stéphane Martin, Nathalie Moliavko-Visotzky · **Antzezleak:** Mylène Jampanoï, Morjana Alaoui, Catherine Bégin, Robert Toupin, Patricia Tulasne
Iraupena: 100 m. · Frantzia-Kanada · 2007

Terrorezko film goreak. Frantzian eta Sitgeseko jaialdian triskantzak eragin zituen berriazko probokazioa. Poliziak, abandonaturiko hiltegi batean hainbat egun giltzapetuta igaro dituen neskatila bat aurkituko du. Hamabost urte geroago, neskak aurre egingo die indarkeriaren eta minaren mugei. Pascal Laugier-en bigarren film luzea.



L'AUTRE

Zuzendaria: Patrick-Mario Bernard, Pierre Trividic · **Gidoia:** Patrick-Mario Bernard, Pierre Trividic · **Argazkia:** Pierric Gantelmi d'Ille ·
Antzezleak: Dominique Blanc, Cyril Gueï, Peter Bonke, Christèle Tual, Anne Benoît
Iraupena: 97 m. · Frantzia · 2008

Anne-Marie eta Alex banandu egingo dira. Alexek bikote bizitza egin nahi du. Anne-Mariet, ordea, aske izan nahi du. Lagun onak izaten jarraituko dute, baina Alexek beste neska-lagun bat aurkitzen duenean, Anne-Marie izugarri jelskor jarriko da, ia zoratzera. Fantasiaren eta errealismoaren arteko nahasketa original honetan eginiko protagonista rolari esker Dominique Blanc harrigarriak Emakumezko Aktore Onenaren Saria irabazi zuen Venezian, 2008an.



Gainera, bi laburmetrai saio izango dira ondorengo filmeekin:

- **FILM LABURREN 1. SAIOA**

JEUX DE PLAGE, Laurent Cantet (1995) 28'
UNE ROBE D'ÉTÉ, François Ozon (1996) 15'
BIEN SOUS TOUS RAPPORTS, Marina De Van (1996) 11'
L'INTERVIEW, Xavier Gianolli (1997) 25'
CINDY, THE DOLL IS MINE, Bertrand Bonello (2005) 15'
DE RETOUR, Jalil Lespert (2005) 23'

- **FILM LABURREN 2. SAIOA**

MILLEVACHES (EXPÉRIENCE) - Pierre Vinour (2000) 10'
MONSIEUR WILLIAM, LES TRACES D'UNE VIE POSSIBLE - Denis Gaubert (2001) 25'
DÉLICES - Gérard Cairaschi (2002) 10'
SOMETIMES - Pleix (2003) 3'
OBRAS - Hendrick Dussolier (2004) 12'
LA PEUR, PETIT CHASSEUR - Laurent Achard (2004) 9'
DU SOLEIL EN HIVER - Samuel Collardey (2005) 17'
QUELQUES MIETTES POUR LES OISEAUX - Nassim Amaouche (2005) 28'
DIX - Bif (2009) 7'